



## **TRAFIKOARI BURUZKO OHARRAK** ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

### **ASTEBURU OSOAN ZEHAR (MAIATZAK 12, 13 ETA 14)**

- **Kotxeak garajeen sartzea** eskatzen da.

### **OSTIRALA (MAIATZAK 12)**

- **Apeaderoko bidea itxita egongo da eguerdiko 12:00etatik aurrera, baimenduentzat izan ezik.**
- **Eguerdiko 14:00etatik aurrera eta Kilometro Bertikaleko froga bukatu arte, lineako autobusak farmazi aurrean buelta hartuko du, geltokia bertan izanaz.**

### **LARUNBATA (MAIATZAK 13)**

- **Lineako autobusak egun osoan zehar farmazi aurrean hartuko du buelta, beraz, geltokia bertan egongo da.**

### **IGANDEAN (MAIATZAK 14)**

- **Ugarte-Zelai kaleak norabide bakarra** izango du, Otsaurteranzko norabidea.
- **Zegama herri barruan dauden ibilgailuek Otsaurtera joateko norabidean, errepidea irekita izango dute 10:30ak arte.** Ordu horretatik aurrera itxita egongo da. Aldiz, Zegamara kanpotik datozenek ezin izango dute Zegama zeharkatu goizeko 6:30etatik itxita egongo baita bidea Intxaustin. Hauek, San Adrian-Santu Espiritun lasterketa ikusi nahi badute, Etzegarate / Otsaurtetik joan beharko dute.
- **Otsaurte gainean, Otsaurte-Zegama norabidean errepidea itxita egongo da** goizeko 6:30etatik 14:00ak arte, baimenduentzat izan ezik. Honela, **trafikoa N-1etik (Idiazabal-Segura-Zegama) bideratuko da.**
- Aurten ere **trafikoaren antolaketa Ertzaintzak burutuko du** antolakuntzako laguntzarekin.
- **Lineako autobusa hartu nahi dutenek, Intxaustiko industrialdera joan beharko dute,** izan ere, autobusak ezingo baitu herrian sartu. Zegamatik Intxaustira joateko edo Intxaustitik herrira etortzeko, maratuirako jarri diren autobus txikiak erabili beharko dira. **Autobus txikien zerbitzua goizeko 7:00etatik 19:00ak bitartean emango da etenik gabe. Autobusa hartzeko geltoki bakarra farmazi aurrean egongo da.**
- Goizeko **7:30etan Apeaderora joateko autobus zerbitzua (Andraitz kaletik abiatuta)** eskainiko da. Honenbestez, Amezti Mendi Elkarteko kideek gidatuta Sancti Spiritura joan ahal izango da.
- **Trafiko ohar hauen inguruan inongo zalantza edo iradokizunik izanez gero Zegamako udaletxera deitu dezakezu, telefonoa: 943 80 11 15.**

Guztion lankidetzeta eskatzen da trafikoak sortzen dituen arazoak ahalik eta txikienak izan daitezen.